

KARMEL'GO AMARI



IZALDIAK igeska yoan ziran, zelaietako bedar usa-
intsu, ziritxo urdin eta lañosak igazi ziran; gizo-
nak be yoan yoazala negar egien, umeak irudi.

Azkenez, Jaungoiko andiak aúeztiz auturiko egun
eder zoriontsua eldutakoan, «Neure Amari yagokon lez
garbi, on eta éru bako egin daidan, diño, Miren'en go-
goa».

Eta gogorik argi-garbiena, aranak zear astiro dabilen
leiar-ituña baño gardenagoa eratu eben bere esku al
guztidunak.

Zelan, izan be, Jaungoiko Aitak itxiko eban bere
Seme bakañaren Ama unetxo baten bakañik aingeru
año ta gaiztoaren mendean?

Egabera urduriak sañi aldatu izan dira urñeko lur-
aldeetara, lei zuriz yantzi dira mendiak, eta munaetan
mugite-bedar baña yaio da; eta Satan'ek badaki, izu-
izuan, emakume garbi-zoriontsu bat lúrean ba-dana,
izañen argia baño be aratz eta ditzikoñagoa. Eta, gau
ilunean buztandun izaña bai-litzan, lezape aizeratsutik
yagi, Sodoma'ko itxasoan orpoak ipiñi dauz, ta bertako
su kutsutuak dardar dagie. Saltzalea, bildurgañiro, egal-
daka doa, ¡Karmel-tontoña igaro ta, ibertar neskatx
gaztea ezagutzeañen, Nazaret'eruntz okertzen da.

Asañetan egaz-dagi gaiztoak, izpi laruak yaurtika;
baña garazurtegi ilunera eldu ezkerro, buruko uleak ten-
te garten yakoz izu-lauoñiz. Mikel, urñean zan zaratea,
Satan'ek egan yoiala egin-otsa entzunik, piñi donga are-
gana doa, aren auzartasuna zigortzen.

Jaunaren Goi-angeruari txinpartak erioen; lerdan-

lerdena zan bere soña; burdiña pitxiz yantzitako ezalduta bulaña; ezpata islatsua geñian; luma moltzo andia urrezko txano ganean.

Alkañi yarki dautsoe, bufukan asi dira; Satan aroak kemenez aztamakil andia yaurti dautso Mikel'i.

Egazka ebiñan ikaragañizko txistuz, baña galtzairuyantzia ezin zulatu.

Gero Satan'en gañera yausten da Goi-aingeru sukoña eta gotzon-adorez oratu ta beso artean estutzen dau; eztaña ikoltzen dautso ta aotik odola dariola iltzen dago. Amilburu goi-goi baten bera itxaso aro-zabalaren ertz zangañera yaurtzen dau azkenez, piztitzar aren arokeria beingoan apaletsiz.

Orduan zoritxañeko garaitu arengana doa gizkarbien gizkarbia, ta bere burutzaña oñez zapaltzen dau; ak, bañiz onen pixua gain asmaurik, alarau sarkoña.

Garale lerdena ureratu da bitartean, eta ule kiskuñak, aize bigunetara iñañosiaz, maitasun-negaña dixuri.

Aingeruak, eundaka ta eundaka, yañai yatorkoz, argitan blei egiten daben burestunez bekokiak edertuta. Eta onen gauza añañañiak ikusirik, ondartzan belaunikotu dira. Ego garbi-bikain onein egileak be, zurturik, abesti au aldañikatzen:

Nor da ori, soña argi-txinpartez dizdizka ta ilbaña oñetan, eremuko ondañeta ixiotuetatik aintzatsu yagiten dan Ori? Orkatz lirañarenak dira bere begiak; soin-bañukoa eder baizen izpitsua, yanzkia aña edeñezkoa, soin-gañekoa aratz-urdiña; ure-orlegi, amusko-goñiak bere begi bitarte liluragañiak. Baña zu oraindik edeña goa zara, bigun-samuñagoa zure Argia.

Arantzartean liliak lez Abraan'en alaba gustien artean nabarmentzen zara. Urdamutur goñi-gurien kuku-lua baño be eskartsu ta orban geagoa Zu, ta pagausoa-

rena baño askoz eztiagoa zure begirakun maitekoña.

Zeruko gudaroste zerdenak apal-apal munkatuko dabe Jaungoikoaren Amak zapaldutako luña. Palmondo eze-yasoen gerizpetan lo dagie karmeldarñak; bere gogoia itxañik dago-ta, ez egin zaratarik, itxi bakean.

Goiz ozkiñi-alaiz, Basan-zelai gurietako eñeka-ertz ostotsuetan oroitz-oñiak iruntzez betetan direan lez, gogo eñu bako ori edertuten daben eskañez apaindu zaitu Jaungoiko andiak, neskatxen lotsoñez ureztu dautzu bekoki zuria.

Zure gutuna (eskapularioa) sorkaldetik sorkaldera ta ipañetik egorañoko guztiak maite dabe.

Siñismen sendoa dozu, mendiak eñotik atera ta aldatzeko bestekoa: kañabera makalagan ez daukazu itxaropen eta usterik, Jaungoikoaren beso indartsuan bakar-bakañik baño.

Maitasañe gartsuan iziotuta daukazuz zeure seme kutunak, eta euren biotzetan yarion oi dozuz maitasun-altxor ugariak.

Itxasorik andienak, zure Anaidi-bazkunekoak zugaz aitzu baño lenago agortuko dira.

Gaurkoz, liliz beteriko zimeratxoak eroango dabez zure altaretara, inguruan usaña edatuko dabe; kedatsa be eñeko da zure oñetan.

Ume-piloak auñean belauniko, Zuri begira daukokezuz; zar-gaztiak, esku-goi, negar egingo dabe pozaren pozaz.

J.

ELEIZ - JANTZIAK

ADOLBA RUI-WAMBA

Plaza nueva 10'an. BILBAO Urrutizkiña 14.238